

## DESKRIBAPENA

Lan honekin hasi bezain pronto, argi genuen jendeari ekonomikoki laguntzeko zerbitzu bat sortu nahi genuela. Ondoren, familia bateko gastuetan elektrizitatearen kostua ze handia den ikusita, fakturak jaisten lagunduko liekeen tramankuluren bat sortzea bururatu zitzaigun. Horretaz gain, gaur egungo gizartean elikadura txarraren ondorioz, geroz eta jende gehiagok osasun arazoak izaten dituela ikusita, honi konponbide bat eman behar zitzaiola ohartu ginen. "Spinning" fenomenoak izandako arrakasta ikusita, bizikletarekin lotura zuen zerbaite egingo genuela erabaki genuen. Bizikletari garbigailua txertatzea ideia paregabea izango zela iruditu zitzaigun eta ideia horri ekin genion.